**MOTZAK** URASANDIN ESKAILERA MEKANIKOAK EGITEKO PROIEKTUA MARTXAN DA
**ELKARRIZKETA** ARITZA MONASTERIO · **GEHIGARRIA** EUSKALTEGIETAN ARIGERA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko urriaren 11a/IX. urtea/379. zkia



ARITZA MONASTERIOK PERUKO SIULA GRANDE (6.356m) MENDIAN BIDE BERRI BAT IREKI DU

## "Lozakurik gabe eta -25 gradura pasa genuen gaua, 6.300 metrotan"



ARAZOAK BEREHALA KONPONDUKO DIZKIZUGU.

# HOBETU EZAZU ZURE BIZI KALITATEA!

**Bizilagunen-elkarteko arazoen konponketa.**
**Etxea berritzeko dirulaguntzak bideratzea.**
**Diru kontuen gestioa Aholkularitza lanak.**
**Berrikuntzetarako aurrekontuen prestaketa.**
**Obra lanen jarraipena eta gestioa.**

Profesionalik onenak ditugu

## JAR ZA1TEZ GURE ESKUETAN










Albokuak e•

a 943 740 673 **20870 ELGOIBAR** 230 Posta kutxatila



## Bushen mendekua

Hilabete pasa da Dorre Bikiak erortzen ikusi genituenetik eta hainbeste aldiz azken hilabete honetan entzun dugun hitza igande arratsaldean egi bihurtu zen. EEBBek NewYorken eta Washintongen gertatutakoaren mendekua hartu dute.

Pasa diren egunetan EEBBetako biktimak izan ditugu behin eta berriz gogoan, baina zer paradoxikoa den hau guztia, ezta? Bush-ek justizia eskatu du biktima guztiengatik, baina zein eratako justizia? Oraingoan biktimak ez dira estatubatuarrek izango, ezta aberatsak ere. Oraingo honetan, herrialde txiro bat izango da biktima bakarra. Beti guda artean bizi izan den herri bat. Bushek justizia bere kabuz hartu du, bere mendekuarekin gero eta biktima gehiago egongo direla ohartu gabe. Zenbat pertsona hil beharko dira mendekua bukatutzat edo eta arrakastatsutzat emateko? CNNek erakutsiko al dizkigu hil diren Afganistango familien irudiak EEBBetakoak erakutsi zizkigun bezala, edo hauek isiltzen saiatuko da, beste guda askotan egin duen moduan?

EEBBek guda askotan hartu dute parte, eta gutxitan erakutsi dizkigute beraien arerioen irudiak, zeren eta ez da berdina txiroa edo munduko Iehen potentzia izatea. Batzuk (aberatsak) beti izango dira heroiak, eta besteak, beti azalduko zaizkigu basati eta kontzientzia gabeak bezala. Beraz, ez dezagun CNNek ematen dizkigun berriak aintzakotzat hartu, eta galde diezaiogun Bushi guda amaitzean, zenbat hildako egon diren eta ea hauek EEBBetan hil edo desagertu direnen balio berdina duten.

Mireia Garrido

Cn o O Ne



## Hitzontziak soberan

80. hamarkadaren bukaeran M-ak taldeak zera abesten zuen: "Hitzak dakartza haizeak, basoaren aldetik; hitz berberak errekak behin eta berriro. Su inguruan bilduta inor ez da mintzo, zain eta zain gogaituta ze itxaropen?". Ze itxaropen egon liteke, mespretxuz, beraien legedia ez betetzeaz gain, herri baten garrasiari jaramonik egiten ez diotenean, ekintza baketsuak egiteari 2 urte, 4 hilabete eta egun 1 deitzen zaionean (azaroaren 9ra atzeratu da elgoibartar batek zuen epaiketa, itzultzaile faltan) aste honetan, beste 16 eibartar epaitu dituzte).

"Hiriko horma guztiak iluntzerakoan, hitzaz dira betetzen isil-isilean. So okerdun, gor eta mutu, zabortegi itzalak ehorzte dituzte". Begiek dena adierazten omen dute, baina gure herrian, begirada batzuk mantentzea lotsa arazten duenik ere badago, nahiz eta so dagoena, horma batean irudikatua aurkitu, barrenak lasaitzeko behin eta berriz ixilarazteko lotsarik ez dutenak".

Hitzez kondenatua hitzez epaitua, hitzez-hitz zigortua, hitzez-hitz antzua. Munduko hiztegi oro ari da negarrez, aditzak beldurtuta geldi-geldi daude". Ez zaitezela irten hitz (pentsamolde) bakarretik at, zureak egingo du-eta. Hala ere, entzun beharko ditugu hitzak, biderik azaltzen ez eta beste bideak uztera behartzen duten hitzak. Hamaika aldiz errepikatzen dizkiguten hitzak, hutsak bilakatzen direnak, ekintzarik gabeko hitzak. Eta hitzak ekintza bilakatu ezean, berdin jarraituko dugu, adibidez, okupazioko ejerzitoaren, adar baten, jai eguna ospatzen. Eta hauekin ere badakigu, "hitzak soberan daude,...".

Nestor Fuentes

Kexak ........................................ 5
InOtZ MOtZ ........................................ 8
gehigania ........................................
kiRolAk ........................................ 16
aGenda ........................................ 20

# Urruzunoren
## begi ezkutua



Berandu orduan ere, berandu zebilen goiz hartan ere, eta Iasterka abiatu zen Plaza Handiko subterraneoruntz, "parada"-ra ahalik eta azkarren iritsi nahian. Eta ez zuen uste inorrekin topo egingo zuenik. Baina goiz hura ezberdina izango zen. Tunelaren erdi erdian, amonatxo bat zegoen, limosna eske. Harriduraren harriduraz bere aurrean geratu zen, eta eskuan autobuseko billetearentzat prest zituen 135 pztak eman zizkion. Eta amonak... eskerrak eman zizkion. Nagusia eta, era berean, ederra zen amonak, irribarre zoragarri bat oparitu zion. Eta Londresen hamar bat aldiz egondakoa zela kontatu zion, bai, bere senarragaz, hain maitea izan zuen gizonagaz. Eta orain alargun zegoen, baina oso zoriontsu izandako emakumea zen bera eta bere istorioa baliozkoa zenez, prezioa jartzen zien bere hitzei. Berak ez zuen limosnarik nahi.... Autobusa joana zen.

**Eguzkiie Aranberri**


ASTEKARIA

**BaRRen**

Natarraa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publiznatea:
'r 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Halbide infornatikaa:
www.topagunea.corrubarren
ARGITARATZAILEA
Eigmbariro Izerra

ELGOIBARIO IZARRA
11. 111 F1,4171A

LAGUNTRAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARLA Ell Aizpuru KAZETARLAK IraliAgirreazaldegi, Asier Orbea PueuzrrAreA Andoilz Agirregomezkorta MAKETATZAILEA /3ea ASSOIR ADMISISTRAZIOA Amala Relingez GERovrait Ainhea Locloso, Nestor Fuentes, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edume Bilbao, Golzon Arrieta. Jon Pell1Jrignen. KOLABORATZAILEAR. Lorea Perez de Albeniz, Jokin Marlinez, Olga Unzilla, Montse Arregr, Juanira Gorostiza, Jon Gurruteaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. ela Urruzuno AZAEEKO ESAERA WIARRA Gotzon Garateren libtoutikINPRiMATWA Gertu Koop. E. TIRADA 4000 ale LEGE GORDAILUA SS.1.028/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Juarlaritzako KaPura Sailak eia Foru Aldundiak diruz lagundatako aldizkariu.*

kutxa
xun eske.

1DANOBAT

OTARTA

GRUPO onru0.1



Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan lan egiteko izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna duten pertsonen bila gabiltza:

**Publizitate Salmentarako Komertz alak**

**Eskaintzen dugu:1**

- Etorkizun handiko komunikazio proiektuan parte hartzea.
- Ordainsari finkoa eta abakorra.
- Bezero poltsa.
- Formazioa.

**Eskatzen dugu:1**

- Euskaraz jakitea.
- Lan esperientzia edo komertzial arloko ikasketak izatea kontuan hartuko dugu.
Autoa izatea.

Interesatuak bidali curriculuma:
Donostiako 1281 posta-kutxatilara, Erreferentzia: kornertziala.




Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

# Ikatea

## anintz

## Eigolbarren bada zer hobetua!



**B**i problema ikttsl ett ditxut batez ere. eia borrek soluzittnatzen saiatuko ninizake: kot ,, iena eta iapa1u arrab.,aIdetako ıart xiana.

Kotxiena ez da Elgoibarr̈en hakarrik pasatzen baina ahal dala. arazua konpontzen ahaIeginduko nintzake Ichenengo. Batetik, ez dao aparkalekurik. hestetik. "earga-desearga" orduetan ezezik. egunizin ziltar ez dao kalian ibiltzerik. Ni lanera oinez juten naiz. baina direklitia aldatu zabeneti! arretera generalian, Eibarrerako sentittutat. .:.1,u Ittk( 5 l, I Ilak e· ilen dia goizetan. Jen.lia ",tt komodua da. eta herritxarrok ere ballat,,tgu kulpia.

Ile,table, zapatu arratsalde eta gabeko inart x ia ere kontrolauko neuke, *ze* leku bautnatik ezin da pasau ere in. Batzutan domeketan kalera urten eta dauan zikinkerixiakin zapatak lurrera pegauta geratzen dia. eta horretarako soluzio bat kaliak doineka goitian garbitzia izango litzake. lanal, a-teleltenerako laga gabe.

J. Luts SARRIUGARTE
Eiektrizizta

## (.111ruil

4 Gizonezko bat etorri zaigu erredakziora eta honakoa esan digu: Urasandin, "tontodromoa" deitzen diogun lekuan, pasiaran ibiltzen gara bizilagun asko baina, belarra ikaragarri luzatu da eta traba egiten du. Norbait honetaz arduratu beharko litzateke".




〈). Emakume bat etorri zaigu BARRENera domeketan Nafarroa Plaza autoz beteta egoten dela-eta kexatzera: "Nafarroa Plaza, hau da, Kultur Etxe aurrea, oinezkoentzat omen da baina dirudienez jende asko ez da konturatu. Parkinga balitz moduan aparkatzen dute bertan eta domeketan, adibidez, gehiegizkoa da. Meza ondoren, buelta bat emateko ere, ondo pentsatu behar izaten dugu, kotxeak eskibatzen ibili behar baikara. Askok eta askok espaloi gainera igota Iagatzen dituzte eta ezin da bertatik pasatu ere egin. Domeketan ez al da grua erabiltzen Elgoibarren?".- Esan digu herritar honek.



2001-X-11

ARITZA MONASTERIO

# Moibartar bat

*Aritza Monasterio elgoibartarra mendiak igotzeko joan zen Perura duela 10 urte. Gaur egun bere emaztea dena (peruarra) ezagutu zuen eta 1993, urtea geroztik Huaraz herrion bizi da. Mendiko gidari moduan lan egiteaz gain, Euskalerria iatebrea eta mendizaleen-izako aterpetxe bat jarri ditu marfacan. Gure arfera ekartzeko arrazoi nagusia mendian lortu duen azken arrakasta izan da, ordea. Arizak eta beste 3 mendigoizaie es1obeniarrek Peruko Siula Grande (6356 metro) mendia igotzeko bide berri bat ireki zuten uztailaren 3a eta 19a bitartean. Especlizioaren berri eman digu Perutik.*



*Aritza Monasteriok 6 urte darantatza Perun bizitzen, haina, erretratuan ikus daitekeen moduan, ez du Euskat Herria ahaztu.*

**Non dago Siula Grande mendia?**

Peruko Huayhuash mendikatean dago kokatuta. "Mendikate Zuria"-ren ondoren, Peruko bigarren mendikate garrantzitsuena da. Zibilizaziotik isolatutako mendiak dira eta Mendikate Zurikoak baino zailtasun tekniko handiagokoak. Urruntasun hau dela-eta, logistika eta azpiegitura gehiago behar da.

**Zenbat lagunek osatzen zenuten espedizioa?**

Guztira, lau alpinistak (Andinista) eta sukaldari batek. Beste hini mendizaleak duela 6 urtetatik ezagutzen ditudan hiru lagun eslobeniar izan dira. Mendi bat baino gehiago igo dugu elkarrekin.

**"Ireki dugun bide berriari Illoches de juerga'izena jarri diogu, pasa genituen 3 'bivac`, *edo gau* gogorren oroimenez"**

**Tontorrera iristeaz gain, bide edo "via" berri bat ireki duzue, ezta?**

Bai, Siula mendiaren mendebaldeko paretean bide berria ireki dugu. Mendebaldeko paretan ireki den bigarren bidea izan da gurea.

Aurrez, bi aldiz bakarrik igo zuten pareta hau. 1987. urtean Joe Simpson eta Simon Yates ingelesak saiatu ziren lehen aldiz. Simpsonek istripua izan zuen ertz bat igotzen ari zela, eta belauna apurtu zuen. Esperientzia gogor hau "Tocando al vacIo" liburuan azaldu zuen. Tontorrera igotzen bigarrenak Carlos Bulheny eta Mark Price amerikarrak izan ziren, 1999. urtean. Ingelesek irekitako bidea jarraitu zuten eta azken zatian bakarrik desbideratu ziren. Gurea hirugarren tentaldia izan da eta bide guztiz berria ireki dugu, ingelesek ireki zutenetik 100 metro ezkerrerago. 1.000 metroko pareta igotzeko 30 ordu behar izan genituen uztailaren 15a eta 18a bitartean. "Mixto Escoces Grado 6" maila jarri diogu.

**Zer izen jarri diozue zuen bide berriari?**

"Noches de juerga" izena jarri diogu, egin genituen 3 "Bivac"-en edo gauen oroimenez, zein baino zein gogorragoak. Cimera izeneko ertzean egin genuen hirugarren "Bivac"-a izugarri gogorra izan zen. 6.300 metrotan geunden eta Bivac-ak egiteko ekiporik gabe (lozakua eta funda), soinean generamatzan jantziekin bakarrik. Izugarrizko hotza egin zuen gau osoan, -25 gradu inguru. Bizirik mantendu ahal izateko, ez genuen lorik egin gau osoan.

**Zer zailtasun ditu bide berri bat irekitzeak?**

Orokorrean, paretan zer aurkituko duzun ez jakitea izaten da zailtasun nagusia. Beharrezko materiala, hau da, janaria, erregaia eta eskaladako materiala aukeratzen jakin behar da, gutxiegi ez eramateko, baina

# bide berriak irekitzen

ezta soberan ere, Gainera, estilo alpinoan eskalatzea konplikatuagoa da. Ez da kanpamendurik eta soka fijorik jartzen eta material guztia soinean eraman behar da. Dena karta bakar batera jokatzean, konpromisoa ere handiagoa da, baina estilo hau garbiagoa ere bada alpinistikoki.

### Zenbat egun behar izan zenituzten espedizioa hasi zenutenetik gailurrera iristeraino?

14 egun. Siula Grande menditik gertuen dagoen herrixka oso urrun zegoen eta telefonorik hurbilena, berriz, oinarrizko kanpamendutik 2 egunera oinez. Egun hauetan guztietan inkomunikatuta egon gara. Inork ez du jakin non egon garen edo espedizioa ondo zihoan, ezta nire emazteak ere.

### Zer sasoitan igo zineten?

Andeetan negua denean, mendi tropikal hauek igotzeko garairik lehorrena baita. Alpeetako eta Himalayako mendiekin konparatuz ezaugarri oso ezberdinak dituzte; elurraren egoera,,.

### Beste zein mendi igo dituzu?

Europan, Pirinioetako mendietan sarritan ibilia naiz. Amerikan, Aconcagua mendia poloniarren glaziarretik igo nuen bakarrik. Patagonian, Guillaumet eta Poincenot mendiak igo nituen. Perun, berriz, Alpamayo mendia 5 aldiz igo dut, guztietan bide desberdinak erabiliz. Quitaraju, Huascaran, Chopicalqui, Artesonraju, Piramide de Garcilaso, Ranrapalea, e,a. dira Perun igo ditudan beste mendi batzuen izenak.

### Noiz hasi zinen mendiak igotzen? Zein eratakoak gustatzen zaizkizu?

Pirinioetan 89-90 urtean hasi nintzen eta Perura 1991. urtean etorri nintzen lehen aldiz Elgoibarko eta Azkoitiko lagun batzuekin. Mendi altuak eta izotz asko dutenak gustatzen zaizkit. Gaitasun fisikoak eta eskalatzeko teknika frogan jarri daitezkeen mendiak ditut gogoko.

## BIZIMODUA PERUN

### Noiztik bizi zara Perun?

1993. urteaz geroztik bizi naiz Peruko Huaraz herrian.

### Nolatan joan zinen?

Mendi batzuk eskalatzeko asmoz etorri nintzen lagun batzurekin batera. Gaur egun nire emaztea dena ezagutu nuen, eta 93an

> "Euskalerria izeneko jatetxea daukagu Perun eta aurten mendizaleentiako aterpetxe bat ireki dugu"

bertan bizitzen geratu nintzen.

### Jantoki edo antzerako negozio bat duzue, ezta?

Bai, "Euskalerria" izeneko jatetxea daukagu eta aurten mendizaleentzako aterpetxe bat ireki berri dugu. Mendiko gidari moduan ere egiten dut Ian. Ekainetik irailera bitartean mendian egoten naiz lanean.

### Nolakoa da bizimodua Perun?

Oso ondo bizi daiteke Perun, betiere, bizitzako zer gauzari ematen diozun garrantzia kontutan hartuz. Ni oso gustura nago eta ondo integratu naiz Huarazko jendearekin. Mediarekin zerikusia duen jendearekin eta bertako gidariekin oso ongi konpontzen naiz.

### Nolakoak dira peruarrak?

Peruarrak euskaldunak baino irekiagoak direla uste dut eta baita atseginagoak ere zenbait zentzutan. Lasaiagoak dira eta ez dira edozergatik asaldatzen. Agian, etorkizunean gehiegi pentsatu gabe bizi dira. Gauza batzuetarako mesedegarria da eta beste batzuetarako, ez.

### Herriminik sentitzen al duzu?

Nire familiaren falta sentitzen dut; anna, aita eta anaiak, eta baita estimatzen ditudan lagun batzuk ere. Gainontzekoa, gauza material guztiak ordezkatu daitezke, ez ordea, pertsonak. Ama San Lazaro egoitzan dago eta besarkada eta muxu bat bidali nahi dizkiet aita eta biei.



*Siula Grande (6.356m.) men•laren 1. e roko mendebaldeko paretan ireki zuten bide berria Aritzak eta 3 eslobeniarrek.*

# Urriaren amaierarako egingo dute Urasandiko eskailera mekanikoen diseinua

## Oraingo eskailerak ez dituzte kenduko, beraz, berriak ,igotzeko eta besteak, jaisteko erabiliko dira

Eskailera mekanikoak jartzeko Udalak duen proiektuaren berri eman genizuen lehen, baina jadanik zehaztu dute Urasandin nondik nora ipiniko dituzten. Eskailera mekanikoetan aditua den etxe batekin hitz egin ostean, aldapak oso handiak izan arren, eskailerak jartzea posible de[a esan dute. Udaleko ingeniariak urriaren amaierarako eskaileren diseinua prestatzeko datuak aurkeztu ditu, eta ondoren, azpiegitura egin beharko da. Gero, obrak zeinek egingo dituen zehaztuko dute, azkenik eskailerak montatzeko. Lurrak Udalarenak direla kontuan hartuta, lanak azkarrago egiteko aukera izango da.



JKing Kongeko zubitik Urasandi auzoko goiko errepidera artean jarriko dituzte 4 eskailera tarteak.

*-ESKAILERA TARTEAK-*

*1. zatia:*
*King-Kongeko zubitik "Casa del Pueblo" tabernaren parera arte.*

*2. zatia:*
*Casa del Pueblo tabernako izkinatik haurtzaindegira arte.*

*3. zatia:*
*Haurtzaindegiko atzeko aldetik Galizia plazara arte.*

*4. zatia:*
*Galizia plazatik goiko errepidera arte.*

**4 tarte zehaztuta**

Oraingo eskailerak kendu behar ez dituztenez, mekanikoak hondatuz gero, igotzeko erabiliko dira eta daudenak, jaisteko. Izan ere, eskailera normalak bezala erabili ahal izango dira. Gainera, eskailerak hondatuz gero, jarri dituen enpresak hartuko luke konpontzeko ardura. Guztira 6 eskailera tarte izango dira, eta horietatik 4 honako leku hauetan egongo dira: Lehena King-Kongeko zubitik Casa del Pueblo tabernaren parera, bigarrena tabernako izkinatik haurtzaindegira, hirugarrena haurtzaindegiko atzeko aldetik Galizia plazara, eta azkena, hemendik goiko errepidera. Gainontzekoak, araututako gehienezko aldaparen arabera erabakiko dute non jarri.



# Haurrentzako jolasak eta salbea izan dira Errosario jaietako protagonistak

Joan den asteburuan ospatu ziren Errosario kaleko jaiak. Ostiral arratsaldean haurrak, beste hainbat jolasen artean, untxi harrapaketan aritu ziren. Gauean afaria izan zen Kataiotza eta Julianaren trikiti doinuek alaituta. Kirolak hartu zuen erreleboa larunbatean: nagusien pilota partidua Muguruza eta Balzolak irabazi zuten. Iluntzean salbea abestera ere inguratu zen jenderik, eta igandean, Amabirjinaren Egunean, Errosario eta Guztiz Donearen erakustaldia izan ziren. Jai batzordekoek laguntzaileei eta bertaratu zirenei eskerrak eman nahi dizkiete.



# Alcorta-Brockhaus enpresako langileek soldata igoera eta langileen kontratazio fijoa lortr dituzte 9 eguneko greharen ostean

## Langileen %78 greban izan da egunean 4 orduz

• 1railaren 26an hasi eta joan den ostegunera arte, urriaren 4ra arte, lau orduko geldialdiak egin dituzte egunero Alkorta lantegian. Produkzioa gelditzea baina Iangileek diru askorik ez galtzea zen beraien asmoa. Beraz, ordubete lanean eta bi geldi egin dituzte 9 egun horietan. Enpresak negoziaziorako bi baldintza jarri zituen: Batetik, autobus zerbitzua kendu eta kilometrajea kobratzeko eskubidea langile batzuek bakarrik izatea; eta bestetik, lan kopuruaren araberako kontratu fijo aldakorraren formula bat ipintzea. Baina langileak honekin ados ez zeudenez, grebara jo zuten. Beraien eskaera nagusiak ere bi izan dira: soldataren igoera eta 3 urtetik gora enpresan lanean diharduten Iangileen kontratazio fijoa.




*Langileen eskaera nagusiak, soldata igoera eta kontratazio fijoa izan dira.*

### Eskaerak beteta

160 Iangile daude Alkortan eta horietatik 125, %78 alegia, izan dira greban. Lau sindikatutako ordezkariak dituzte lantegian, eta talde bakoitzak bere lehentasunak izan arren, eskatutakoak neurri batean bete direla ikusita, bertan behera utzi zuten greba joan den ostegunean, hilaren 4an. IPC-ari 50.000 pezeta gehitzea eskatzen zuten, baina soldataren igoera 35.000 pezetakoa izan da. Bestalde, komiteak gutxienez 20 langileren kontratazio fijoa eskatu zuen eta azkenean, guztiek, 25ek, izango dute kontratu fijoa.

# Laiotz literatur aldizkariaren 8. zenbakia kalean da




Elgoibarko Izarra Idazlehiaketetako 2000. urteko lan sarituak biltzen dituen Laiotz literatur aldizkaria kalean da. 8. zenbakia da aurtengoa eta idazlan eta bertsoez gain, idazle gazteei bunizko hainbat datu ere agertzen dira. 1.000 ale kaleratu dituzte eta herriko ikastetxeetan banatuko dira. Beste inork jaso nahi badu, Elgoibarko Izarran bertan egongo dira. Bestalde, aldizkariarekin batera 2001eko Elgoibarko Izarra Idazlehiaketetako oinarriak ere banatuko dituzte. Aldez aurretik jakinarazi nahi dizuegu lanak aurkezteko epea abenduaren 15ean amaituko dela.

# Juan Zinkunegik irabazi du San Migel jaietako zozketako txekorra



San Migel auzora bertara joan da bailarako jaietan zozketatutako saria. Erreketa baserriko Juan Zinkunegi Izak erosi zuen 5.202 zenbakidun txartela. Beraz, berarentzat izan da txekorra. Baina txekorraren ordez nahiago izan du Juanek diru saria eta Armueta harategikoekin tratua egin eta bertara saldu du ganadua. Seguraski izango da San Migelgo jaietan zozketatutako txekorraren txuletarik jango duenik. Izan ere, gutxi gorabehera 375 kiloko pisua duen txekorretik, okela nahikoa aterako da.



## Espainiako Kongresuak homosexualen ezkontzeko eskuiddeari uko egin dio.

# BINOTE HOMOSEXUALEK EZKONTIEKO ISKUBIDEA IZAN BEHAR AL LUKETE?



### PAKI LUCHO

**35 urte, psikoterapeuta**

Bai, erabateko eskubidea gainera, Eskubide eta betebehar guztiak izan behar dituzte, egoera sexuala kontuan hartu gabe. Baina txikitatik horrela hezi gaittrzte eta badirudi heterosexualak bakarrik ezkondu daitezkeela.

### UNAI SUAREZ

**22 urte, montadorea**

Bai, zergatik ez ezkondu? Bakoitzak edozer gauza itxeko libertadia euki bihar dau. Beti hola izan dala esatia da eskubide hau ukatzeko ematen daben arrazoi bakarra.





### ANA MARIA LAKA

**37 urte, etxekoandrea**

Bai, zegaitxik ez ba! Ondo beitxantzen jata, eurak gustora bizi badia, beste edozeinek bezela, ezkontzeko posibilidatha euki biharko zaben. Ez dakat ezer euren kontra.

### IDOIA ALONSO

**35 urte, kamarera**

Bai, beste edozeinek bezela. Nere ustez ez da inor eon bihar zein ezkondu leiken eta zein ez esateko. Norberak erabaki bihar dau zeinekin eta zela ezkondu, eta horretarako eskubidia bihar dou.





### IGNACIO GARCIA

**30 urte, komertziala**

Bai, bikote heterosexualekiko berdintasuna izan beharko lukete. Baina eliza bezalako hainbat sektorek presioa egiten diote botere politikoari, eta ondorioz, horrelako erabakiak hartzen dituzte.

### MIKEL RUIZ

**16 urte, ikaslea**

Bai, danok berdinak gera, eta homosexualek ere ezkondu nahi badabe, horretarako eskubidia euki biharko zaben. Ez jata ondo beitxantzen Kongresuak hartu daban erabakixa.



URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 EIGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
THE HARTFORD
ASEGURUAK

ORAIN ASTEARTE arratsaldeetan eta OSTIRAL arratsaldeetan ERE ZABALIK!
ALBERTO Arraindegia
Heibide berria:Azpilgoeta, 5 .MENDARO
Tel. 943 033 622 • hiugikorra: 600 440 255

euskaltegi .1.7 9 1
ari era
Elgoibarko HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEARI eskainitako gehigarria

# "Nire bizitza hobera aidatu da euskarari esker"

**M. EUGENIA GONZALEZ**

*45 urteko elgoibartar honek euskara ikastea pentsatu zuen. lendearekin harremanak euskaraz izateak gozamena sortarazten omen dio. Bere nohia, ordea, etxean senarrarekin eta bere bi semeekin euskaraz hitz egitea da, orain erderaz egiten baitute.*

**Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?**
Txikitatik eduki dut euskara jakiteko gogoa, baina "gusaniiloa" euskaldun batzuen etxean lanean hasi nintzanean piztu zitzaidan. Gero, neure semeak ikastolan hasi zirenean, haiei lanak egiten laguntzeko ere beharrezkoa nuela ikusi nuen. Oso hizkuntza polita zela pentsatu nuen eta ikasten "bomba" pasatzen nuela, gainera. Konturatu gabe, serio hartu nuen.



**Nori ikasi araziko zenioke euskara?**
Jende mordoari: nire lagunei eta batik bat, etxekoei, erderaz egiten dugu-eta.

**Zertarako balio izan dizu euskara ikasteak?**
Euskaraz dakien jendearekin hitz egiteko aprobetxatzen dut. Niretzat oso gauza berezia da. Euskara ez da nire ama hizkuntza eta orain hitz egiteko gai izatea gozamena da.

**Zure bizitza berdina izango al litzateke orain euskararik gabe?**
Ezta inola ere. Harremanak guztiz desberdinak dira. Nire bizitza hobera aldatu da.

r 7:"r/

## MAISU MA1STREN luma



**EZ DA HAIN FAZILA, EZTA HAIN DIFIZILA ERE**

Urtero bezala euskaltegietan bezeroak noiz etorriko zain egoten gara. Hala ere, ez da guk nahi genukeen beste hurreratzen. Izan .ere, azken urteotan bestelako ikastaroak ugaritzearen ondorioz, dexente nabaritu da euskara ikastearekiko utzikeria hori.

Beharbada, eta bizitza honetako gauza askotan bezala, modak izango du zerikusirik. Euskara ikasteak ezagutu zuen sasoi loratsuagorik orain 20-25 bat urte, baina une honetan ez dago modan.

Dena den, modako arloan gauza gehienekin gertatu ohi den bezala, honetan ere, lehengoa bueltatuko ohal dal

Gauzok horrela, ezin utzi esan gabe, urtero-urtero euskaltegietara zintzo-zintzo etortzen zaretenok gure eskerrik onena daukazuela eta zuek ongi frogatu diguzuen bezala, euskara ikastea EZ DA HAIN FAZILA, EZTA HAIN DIFIZILA ERE.

**ITZIAR AGIRREGOMEZKORTA**
**Udal Euskaltegiko Zuzendaria**

S)P



praktikatzen dut.

**5. Euskalduna izateko euskara jakin behar al da?**
Ez horixe!

**6. Egia al da euskararik gabe ez dagoela Euskal Herririk?**
Bai, bere enkantua galciuko luke.

**7. Dakienak egiten ez badu, ez dakienak ikasiko al du?**
Euskaldunek, euskaraz hitz eginez, ez dakitenei lagun diezaiekete eta jendea euskara ikastera ere anima dezakete.

**8. Euskaldunok baloratzen al dugu euskara ikasleon ahalegina?** Nire kasuan animatzen naute eta baloratu ere bai.

**9. Euskara ikastea doan izan beharko al litzateke?** Bai.

**10. Euskararen gainean, lainoak ala ostarteak ikusten dituzu?** Ostarte gehiago lainoak baino.

## Delia

**1. Zerk bultzatuta hasi zinen euskara ikasten?** Niregatik hasi nintzen eta ramiliak ere bultzatu ninduen.

**2. Egia al da euskara ikastea hain zaila dela?**

Hastea da zailena, gero, poliki-poliki, baina atsedenik gabe jarraitu behar da.

**3. Eta euskaltegian asko ligatzen dela?** Ez da oso leku aproposa ligatzeko. Horretarako zapatuak daude, baina lagunak egiten dira.

**4. Euskaltegitik kanpo hitz egiten al duzu norbaitekin euskaraz?** Dakitena behintzat, semeekin



**Ikasleak, ezkerretik eskumara:** Loli, Ana, Rosa, Delia, Mikel, Ai Rocio, Kini, Mariaje, Kontxi eta Ernesto. Erretratuan Jabi falta da.

## DEKLINABIDEA

**NOR da getan euskaraz ondoen egiten duena?**
Rosci

**NORK hitz egiten du gehien klasean?**
Mariajek.

**NORI esango zenioke gehiago ahalegindu behar dela?**

**NOREN ondoan esertzea gustatuko litzaizuke?**
BJI:Ohz'Olen ondr.(11.

**NORENTZAT izaten dira irakaslearen haserreak eta**

## "I KUS I ETA I KAS I" LEH1AKETA

8
1
2
3
4
5
6
7



lehtaketan parte hortu nahi baduzu, guretzegramo ondo egitea besterik ez daukazu. Horrela egin ostean,. moztu papera marra etenetik eta bidali honctko helbldera azarooren 1 a baina lehen. 8i pertsonarentzat ofarta tram dezakezu, Toletxt tabennan. Bidali erantzunak helbide honetara: Arigera proiektua. Ubitarte 4, Eeheo 20870 Elgoibar, arigera@infonegocio.com. Euskara ikasleak euskaltegietan ere entrega dezakezue.

**EZKERRETIK ESKUMARA**

1. **Araban egon arren, Burgos da.**
2. **Gipuzkoako mendirik aituena.**
3. *"Euskal herrian Euskaraz"abesten* **duen euskal taldea.**
4. **Gaur ez naiz eskolara ioan:__________ egin dut.**
5. **Euskal Herriko probintzia bat.**
6. **Elgoibarren osteguna.**
7. **Irutietik pasatzen den ibaia.**

**GOITIK BEHERA**

8. **Roncesvalies euskaraz.**

Parte hartzen duzuenon artean SARI BAT zozketatuko dugu!



ria {irakaslea),

## GELMO FITXR TEISWR

**Euskaltegia:** AEK euskaltegia
**trakaslea:** Arnaia I_arratioga
**Urratsa:** Behe urratsa
Owsle kopurucst 11 ikasle
**Gixonezkoak:** 3 ikasle
Emakumelkook: 8 ikasle
**Batazbesteko ikasieen ad** 35 urte
**Astean kkise orduak: 10** ordu
**Bitx-ikeriak:** Euskal Hertlko herrialde desberdinetako lendea da.

# BEG ZOR9OTZ'

Talde honetan gehienak emakumeak gara, irakaslea barne. Beraz, berriketarik ez da falta izarsgo. Gizonei ere gustatzen zaie, nahiz eta hasieran serio xamar agertu. Euskara ikastea egunero euskaltegira etortzea bakarrik ez dela badakite, eta AEK euskaltegiak edo taldeak berak antolatuko dituen ekintzetan parte hartuko dutela uste dut. Izan ere, euskara ikasteaz gain, lagunak egiteko ere toki egokia baita euskaltegia.

Errezetek eta sexu kontuek berotuko dizkigute udazkena eta negua, eta udaberrian landareak izango dira nagusi.

**AMAIA LARRAÑAGA**
**AEK euskaltegiko irakaslea**

**bronkak?**
Moriajerentzat.

**NOREKIN joango zinateke gustura afaltzera?**
c;elakoekin.

**NON praktikatzen duzu gelan ikasitakoa?**
1. Etxean, ge.hlenbat. Ahal dugunecm, kalean erabiltzen sthotzen gara eta larrean *ere* bai, gulxi bada ere.

**NORA joango zinateke irakaslearekin asteburu bat pasatzera?**
Perisera.

**Urtarrilean txanpon bakarra izango dugu ia Europa osorako**

## ETORKIZUNERN HIZKUNTZA ERE SAKARRR DENONTZRT?

111. DR



TZiaK IRiTZi



**ROCIO**
"Bai, hizkuntza bakarra izango da, inglesa. Hizkuntza txikiak galtzen ari dira. Hala ere, guztion artean ez galtzeko ahalegina egin behar dugu".

**MIKEL**
"Nire ustez bai inglesa izango da hizkuntza bakarra. Hizkuntza ez galtzea jendearen eskuetan dago".

## AURREKO "OKERRAK ZUZENTZEN" LEHIAKL¡AKO ERANTZUNAK

### X ESALDI OKERRAK

2. Aranixa, San Roken dela, Bilbon ikusi dut.
4. Ezingo ditugu gezurrik esan.
5. Asierreri eman diot liburua.
7. Goiz guztia pasatu naiz kalean.

### ERANTZUN ZUZENAK

2. Arantxa, San Roken bizi dena, Bilbon ikusi dut.
4. Ezingo dugu gezurrik esan.
5. Asierri eman diot liburua.
7. Goiz guztia pasatu dut kalean.



# IRABAZLEA

**ENARA GOROST1ZA da.**

**Saria:** Bi pertsonarentzat afaria
Toletxe tabernan

■ NOTOZIAK

## 145 LAGUNEK EMAN DUTE IZENA AEK-N ETA UDAL EUSKALTEGIAN

### Euskura ikasteko asmoa dutenek, oraindik izena eman dezakete


AEK euskaltegia

